

Arrasate

P R E S S

1995eko
maiatzak 12
276. zenb.

KIROLAK

Patxi Gorosabel

KULTURA


Maiatza Dantzan

San Isidro eliza

50 urte

ateak

zabalik



TAKOLO AUTOAK



**Zure OPEL banatzailea Arrasaten.
ESCATU PABILOIAN**
Zure ondoan,
zergatik joan urrutiago?



**Keramika
erakusketa
eta
salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22
Tfnoak: 79 81 80 - 77 09 59 Fax: 79 81 80
ARRASATE

Mittoa apurtuz

Txikitatik askotan entzun dudana esaldia da, nire inguruan eta batez ere bertakoa den jende nagusiaren-gandik jaso izan dudana mezua: Arrasateko hizkera edo hizkelkia **txarra** da. Aste honetan berriz ere belarriratu zait jada mito bihurtu dela dirudien esaera hori. Noski, herrikoa ez den zenbait jende ere sarri aurpegiratu izan didan zerbait da hau.

Txikitari, jakina, erantzunik gabe geratzen nintzen; are gehiago nire amaren hizkera goierritarra zela kontuan izanik. Orduan bertako jende nagusiak nire hizkera giputza garbiagotzat eta ederragotzat jotzen zuen, eta, noski, errezagoa zen ortografia (z/s bereizketa) eta zenbait arau gramatikal etabar ulertzea. Ez zen abantaila makala, ez horixe! Egun, ustez gauzak argixeago izanik, hori gezurtzat jo dezakedala iruditzen zait. Eta hizkera "txarrik" ez dagoela baieztatu dezaket.

Era berean, ez dut ulertzen euskaririk garbiena eta politena Beterrikoa edo Tolosaldekoa delakoaren zergatia. Batua- ren antzekoena iruditzen zait, bai, baina euskal hizkera ugarien artean ederrena...zergatik? Hemengoa baino goxoagoa, behar bada...baina hobea? Non datza ontasuna ala txarkeria?

Zenbaitek gaztelaren eragin larri eta gaitza egotzen dio "arrasatera"ri; bizkaitarrek, beraiengandik urrun dagoen zerbait dela diote; gipuzkoarrek, beraiekin zerikusirik ez duela. Eta arrasatearrok, noraezean eta urtetan, eskuartean zer geneukan jakin gabe. Duela gutxi, Gotzon Garatek "arrasatera"ren zenbait bereiztasunen berri eman zuen. Urtetako mitoa hautsi zuen.

Baina nola bizi du herri-hizkeraren auzia hemengo zenbait erakundek? Ofizialki batua gailendu den garaian gaude: hizkuntza estandar bat behar zen herrialde ezberdinen arteko komunikaziorako, literaturarako, hizkuntzaren iraupe-nerako azken finean. Baina behar horrek gainezka egin digula iruditzen zait, horrek ez bailuke gure herrietako berezko ondarea menperatu behar, konplementatu baizik.

Ikastetxeetan ikasleei zerbait zuzentzen zaienean, batuaren araupean zuzendu ohi zaie: zergatik ez eman, aldi berean, beraien hizkelkiak eskeintzen dien eredu zuzena? Zergatik ez bereiztu ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia, bakoitzaren esparrua ondo definituz? Ikasleek azalpen horiek sarritan beharrezko dituzte, ez baitute askotan bereizten batak ala besteak esaten dutenaren artean zer den zuzena eta zer ez.

Herri-komunikabideetan ere badago zer eginik. Komunikazio hizkuntzak batura jo du ezinbestean; baina hori euskal komunikabide orokorretan logikoa izanik, hain logikoa al da herri bakoitzaren barruan? Ez al genuke indartu behar berezko dugun eredia?

Bada garaia uler dezagun aberastasuna aniztasunean dagoela eta eskuartean darabilgun hizkuntza, bere aldakien ugaritasunean, altxor bat dela. Gutako bakoitzaren lana da egokitu zaion zatia zaindu eta garatzea.

Bada garaia txarkeriaren mitoari bizkara eman eta normaltasunaren bideari ekiteko, ahoz eta idatziz, bixak ganoraz in geinke eta.

KARMELE PEREZ

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikatzailea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazlea:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzasu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Raia mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Goio Arana

**GATZAGAn,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetxea**




Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurritzaileak Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAL 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

IBARRA Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Altzariak
Disenua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Aramaixotarrak

Jose L. Ormaetxea jauna, zuk zure gutunean adierazten duzun bezala guk "Aramaio-arrak" izatea aukeratu bagenu, gizonezkoak bakarrik sartuko liriateke, beraz, emiak ere erabili beharko genituzke, hau da, Aramaio-arrak eta Aramaio-emiak. Baina hau luzeegia iruditzen zaigunez, "Aramaixotarrak" erabiltzea gustokoagoa egiten zaigu, maiuskula eta guzti, merezi dugula uste baitugu. Ez da izango ba, "mondragoetarrek" Gabriel Jauregi bat edo bestelako pertsonai paregabe korik ez dutela eta ipurterrea hortik datorrela?

Bromak alde batera, Kultura Batzordeak erru hau zuzentzeko Jose L. Ormaetxeak eginiko azalpen hau ezkertzen dio, baina zenbaitzu, hizkuntzaren forma normalizatuaren kontra, "Aramaixotarrak" izango gara.

**ARAMAIOKO UDAL KULTURA
BATZORDEA**

Amari eskeinuta

Sozioologo, etnografo, antropologo etab. rrek aurreko mende bukaeran oraindik birginal samarrak ziren amerikar eta australiar tribuak ikertu ondoren, birgintasun mota bi zeudela erabaki zuten: amak imanetzatuta bere izate eta denboran mugitzen zirenak, eta aitaren eraginez mugitzen ziren beste batzuk.

Horregatik azken hauek erditzera (beraien emeak) izaki berriaren aita sortu zela uste zuten eremu geografikoetara joaten ziren; besteek beste arrazoi batzurengatik aukeratzeko zuten.

Maiatza loreei eskainita-ko hilea izanik, batez ere 7a, egin gintuzten eta predikatu ezin den izaki haiei buruzko meditazio unetxo bat egiteko egokia da. Ametsean "doble" aren ezak beti du ondorio gisa pentsamendua eta bizitzaren gelditzea. Horrela, ikuspegi desberdinen arteko kontrolak giza-kiaren izaera bikoitzaren ideia baieztatzen du.

Amaren egunean eta berari eskainita.

JOSEBA COSTANA

OHARRA

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzearekin izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inazileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

FELIPE MADINA

ZURAK


Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Ikerne Heriz

Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Betile iraunkorrak



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Abizenak euskal grafiara aldatzeko asmorik?



Roberto Lezaun de Guevara
Fagorreko langilea
(50 urte)

Entzun dut hori egiteko kanpaina hasi dela, baina nik neuk ez dut aldatuko. Pozik nago nire abizena idatzeko erarekin.



Elena Lasaga Etxekoandrea
(34 urte)

Nire seme-alabek euskal grafian idazten dute Gantxegi abizena. Paper guztietan hala idatzita azaltzen da eta horretarako ez dugu ezer berezirik egin behar izan.



Karlos Aritzabaleta Fagorreko langilea
(41 urte)

Galdetu egin nuen eta nire abizena euskal grafiara alda daitekeela eñan didatenez, aldatzea erabaki dut. Aritzabaleta izan beharrean, Aritzabaleta izango naiz hemendik aurrera.



Josebe Landaluze CIMeko langilea
(35 urte)

Nire abizena euskaraz idatzita azaltzen da eta hori horrela izateko ez dut ezer berezirik egin. Bigarrena ez dakit aldatu ote daitekeen (Ruiz de Alegria), baina ez nuke aldatu ere egingo.




Iñaki Murua Langilea
(26 urte)

Abizena euskal grafian dut baina izena aldatu nuen, lehen Ignacio nintzen eta. Orain dela hiru urte aldatu nuen izena.



Amaia Ormaetxea Ikaslea
(16 urte)

Nik tx-ekin idazten dut abizena baina nortasun agirian ch-rekin daukat. Ez dakit aldatuko dudan, pentsatuko dut.



Luis López Langilea
(40 urte)

Nire abizenak ez dut uste alda daitezkeenik baina aldatzeko aukerarik izango balitz ere, seguruenik ez nuke aldatuko.



Oihana Aranburu Ikaslea
(15 urte)

Nortasun agirian m-kin idatzita ageri zait, baina nik n-rekin idazten dut. Seguruenik aldaketa egingo dut, nortasun agirian euskal grafian ager dadin.

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegikorra

ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udalzaingoak
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraloak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 12
 Egunez eta gauzez: Camacho, Bergara
 10ak arte: Morales, San Andres auzoa.

Larunbata 13
 Egunez eta gauzez: Camacho, Bergara.
 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías kalea.

Igandea 14
 Egunez eta gauzez: Puy, Bergara.
 10ak arte: Español Iturriotz.

Astelehena 15
 Egunez eta gauzez: Camacho, Bergara.
 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías kalea.


Asteartea 16
 Egunez eta gauzez: Cuellar, Bergara.
 10ak arte: Corcuera, Musakola.

Asteazkena 17
 Egunez eta gauzez: Irizar, Ercueta kalea.

Osteguna 18
 Egunez eta gauzez: Ruiz, Maala kalera.

12 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Vivir" 10etan.
- **MUSAKOLAKO JAIK**
 Arratsaldeko 7etan ikurriña igo-tzea. Buruhandiak eta erraldoiak dultzaineroekin batera. 7.30etan auzoko jubila-tuentzat jai-afaria Kataide jatetxean. 11etan Drindots taldearekin dantzaldia. 12.30etan diskoteka ibiltaria. Goizaldeko 6etan galtzontzilo, kulero eta kamiseta bustien lasterketa.
- **BESAIDEREN MENDI ASTEA**
 Diapositiba emanaldia. "Nanga Parbat, 8.125m". Egilea: Elgoibarko espedizioa. Monterronen, arratsaldeko 7etan.



KONTZERTUA GAZTETXEAN

Maiatzaren 13an gaueko 9.30etan, kontzertua Gaztetzan "Fuck You Crew" eta "Dut" taldeekin.

MATRIKULAZIOA INSTITUTOAN

Institutoan matrikulazioa zabalik dago, ordutegi honekin: goizeko 10etatik 4etara.

13 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Street fighter" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **EAJren PROGRAMAREN AURKEZPENA**
 EAJren programaren aurkezpena eguerdiko 12etan Monterronen.
- **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 "Fuck You Crew" Berlingo taldea eta Hondarribiko "Dut" taldea. Gaztetzan gaueko 9.30etan.

• **MUSAKOLAKO JAIK.**
 9.30etan 6. mendi bizikleta irteera. 10.30etan pilota partiduak. 12etan karate eta Aerobic erakustaldia Musakolako kiroldegian. 12.30etan Motozaleen kontzertuzaldea. 2etan manifestazioa "Musakolako independentzia orain" lemapean. 2.30etan herri bazkaria Kataide jatetxean. 3.30etan IV. Xake irekia. 4etan Musakolako X. txirridularitza saria. 5.30etan San Isidro soka-tira sari nagusia.. 11etan "Arkaitz" taldearekin berbena goizaldera arte. 11.30etan San Isidro Bolo txapelketa. Gauerdian Playback Musakolako antzokian. Goizaldeko 2etan gizon eta emakumeen strip-tease diskotekako plataforman.

• **DANTZA GARAIKIDEA**
 Metros taldearen "Miénteme por favor" dantza garaikideko emanaldia. Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. eta gazte txartelarekin 500 pta.

• **TXATXILIPURDI LUDOTEKA**

Txatxilipurdi AEDko ludoteka ibiltaria San Andres auzoko alkatetzan goizeko 11etatik 1etara. OHoko lehen mailatik zortzigarren maila bitartekoei zuzenduta.

14 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Street fighter" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **MUSAKOLAKO JAIK**
 Goizeko 10etan buruhandiak eta erraldoiak dultzaineroekin batera. 11etan umeendako marrazki lehiaketa. 12etan gimnasia erritmikorekin erakustaldia, Gimka-Gacela taldearen eskutik. 12.30etan txikiteoa, auzoko txistulariek alaituta: larguito, Txiu, Iban eta Junkal. 6etan herri kirolak. 7.30etan "Bill Thomas-en" eskutik Blues jaialdia. 10.30etan azken kalejira eta 12etan azken traka, suzko erruberak, agurra eta amaiera.
- **ARRASATE-OÑATI LASTERKETA**
 Goizeko 11etan Portailoiti. Autobus zerbitzua egongo da.

• **HERRI URRATS**
 Herri Urrats, Senperen. Arrasate autobusaren goizeko 8etan Zaldibar pilotalekutik.

SOKA KONTZERTUA

Maiatzaren 13an, Biolin eta Biolontxelo kontzertua Arrasate Musikaleko areto nagusian eguerdiko 12etan

PINTURA ERAKUSKETA

Maiatzaren 19tik 28ra arte Margo taldearen pintura erakusketa. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

15 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Street fighter" 7etan eta 9.30etan.
- **SAN ISIDRO EGUNA**
Goizeko 11.30etan Meza nagusia, Jose Mari Setien Donostiako gotzaiak emango du. 2etan baserriarrek zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute.
- **HITZALDIA BITERI EGOITZAN**
Jabier Etxebarria, EHUeko Logikako irakaslearen hitzaldia Biteri egoitzako areto nagusian arratsaldeko 18.45etan.

16 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Street Fighter" 7etan eta 9.30etan.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA**
"Ekialdetik Euskal Herrira". Egilea: Javier Juanes. Eskola Politeknikoan, arratsaldeko 7etan.
- **HBren MITINA**
HBk antolatuta mitina arratsaldeko 7.30etan Herriko plazan. Xabier Zubizarreta eta Iñigo Iruinen partehartzaile.
- **ZUTIKen AURKEZPENA ETA HITZALDIA**
Zutik alderdi politikoaren aurkezpena Monterronen arratsaldeko 6.30etan. Ondoren hitzaldia. Gaia: Proposamen ekologistak Udaletxean. Hizlaria: Carlos Alonso. Monterronen arratsaldeko 7etan. Zutikek antolatuta.

17 ASTEAZKENA

- **DIPOSITIBA EMANALDIA**
"Euskal Herria: lanetik festara". Egilea: Javier Juanes. Eskola Politeknikoan arratsaldeko 7etan.

18 OSTEGUNA

- **ZINE KLUB-A**
"Olivier Olivier" Amaia antzokiaren gaueko 9.30etan. Sarreara: 300 pta eta gazte txartelarekin 250 pta.
- **BERTSOLARI HITZALDIA**
Amuriza eta Egañarekin, arratsaldeko 7etan Monterronen. AEDk antolatuta.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA**
"Gipuzkoako Herriko Ihauteria: Abaltzisketa". Egilea: Eskola Politeknikoan arratsaldeko 7etan.
- **HITZALDIA ETA MAHAIN-GURUA**
Gaia: Gazte kirolariei zuzendutako entrenamendu generikoak". Hizlaria: Jabier Orbanos. Oñatiko Kultur etxean arratsaldeko 7etan. Mahainguruko partaideak: Jabier Aymerich, Jose Julio Barrenetxea, Iñaki Ugarte-buru eta Ion Patxi Diaz.

45eko KINTOEN BAZKARIA

Ekainaren 10ean 45eko kintoek meza eta bazkaria izango dute. Izena Ertz perfumerian eman daiteke.

MENDI IRTEERA

Besaide mendi elkarteak Anetora mendi-eski irteera antolatu du maiatzaren 19, 20 eta 21 rako. Irteera 19an arratsaldeko 4etan Garibaitik. Izena eman daiteke 16an eta 17an arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren Egoitzan.

ESKULAN ERAKUSKETA

Maiatzaren 22tik 29ra arte Deba Garaiko jubilatu etxean Eskulan erakusketa. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

ZUTIKen HITZALDIA

Maiatzaren 19an, ostirala. Gaia: "Argelia sutan". Hizlaria: Alfonso Bolada, arabista. Monterronen arratsaldeko 7etan.



BIDAIA DINOSAURIOEN RUTARA

La merced ikastetxeko ikasle ohiek dinosaurioen rutara bidaia izango dute maiatzaren 20an. Izena Lore perfumerian eman daiteke.

Ibai Arteko zuhaitzak Akein

Joan den ostiralean, 105 izei landatu zituzten Akei inguruan hainbat gaztek. Zuhaitz horiek Ibai Arte elkarteak erosi zituen Gabonetan dendetako kanpoaldeak apaintzeko. Izeiak erosi zituztenean gero landatu egingo zituztela erabaki zuten eta ostiralean hitza bete zuten.

800 ume kantuan

Ia 800 ume aritu ziren kantari joan den zapatuan Amaia Antzokian, Deba Garaiko eskolen arteko VIII. Topaketetan Guraso eta familiarteke ugari hurbildu zen etxeko txikienak kantuan ikustera. Inguruko hamabost ikastetxek parte hartu zuten topaketan.

Mendiari buruzko astea

Besaide mendizale elkarteak antolatutako mendi astearian barruan, mendiari buruzko ekintzak izan dira egunotan. Ohi bezala eta asteari hasiera emateko, mendi bizikletaz ibilaldia egin zuen hainbat lagunek. Domekan Leintz bailarako 8. itzulia egin zen, baina oraingoan oinez. Martitzenean, berriz, mendi istripuei buruzko mahaingurua izan zen ATBn Besaidek antolatuta. Felix Iñurrategi mendigoizaleak, Pako Iriondok,



Arrakastatsua Kermi-ren omenezko festa

Jai giroa izan zen nagusi Kermi-ren omenez zapatuan egindako festan. Euskal Herriko toki desberdinetatik etorritako hamabost antzerki taldek parte hartu zuten omenaldi festan eta egun guztian zehar antzerkia izan bazen nagusi, gauean musikak hartu zion txanda Gaztetxean izan zen kontzertuaz.

mendi federazioko lehendakariak, Josu Lazio, Gipuzkoako goi mendi eskaladako lehendakariak eta Antxon Iturriza kazetariak parte hartu zuten eztabaida saioan, Xabier Letona arrasatearraren gidaritzapean.

Fagor taldeko Batzar Orokorrak

94a urte ona izan zen Fagor taldeko kooperatiba gehienentzat. Ostiralean Batzar Orokorra egin zuten Fagor Arrasatek, Automotioek eta Elektronikak. Urte hasieran galerak izango zituztela uste bazuten ere, urtea bi milioiko irabaziekin bukatu zuten

Fagor Automotioek eta aurten emaitza hobeak izatea espero dute. Fagor Elektronikak, 90 milioiko etekinak lortu zituen eta aurrera begira produktu berriak egiten hasteko asmoa dute. Erreminta-makina alorrean lan egiten duen Fagor Arrasatek, berriz, 300 milioiko galeekin bukatu zuen urtea.

Zapatuan, Fagor Ederlanek egin zuen batzarra. Kooperatiba honek 420 milioiko irabaziak izan zituen iaz eta 200 lanpostu sortu zituen.

Asteazkenean, Fagor Elektratsnak-en txanda izan zen. 94an 1.600 milioiko etekinak lortu zituen kooperatiba honek.

Langileen protesta

Udaleko langileak protesta ekintzak burutzen ari dira joan den ostegunaz geroztik. Eguerdiero Herriko Plazan txistu zaratak ateratzen dituzte, euren desadostasuna azaltzeko. Gobernu batzordeak, Eudeli negoziazio mahaia bil dezala eskatzea erabaki zuen baina sindikatuetako arduradunen ustez, Eudelek ez ditu euren proposamenak onartuko eta Udalak langileen plataformarekin negoziatu beharko du.

JAIOTZAK

- Danel Oruna Ruiz. Apirilaren 18an.
- Andoni Sanchez Barrionuevo. 24an.
- Izar Amagoia Bedia Delgado. 28an.
- Marian Del Pozo Herrero. 26an.
- Jon Zubia Lopez de la Calle. 28an.

EZKONTZAK

- Norberto Mondragón Etxebarria eta Maria Rosario Gruzeta Etxebarria. Maiatzaren 5ean. Zibilez.
- Fernando Jose Arana Uribebarria eta Miren Bakarne Pagaldai Jauregi. 6an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Ramona Orbea Jauregi. Apirilaren 28an. 89 urte.
- Maria Teresa Gonzalez Arias. Maiatzaren 3an. 29 urte.

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
 • Sukalde altzariak
 • Armairu enpotratuak
 • Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
 Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
 Tfnoa /FAX: 79 01 82

ARGI PLASTIC
 • PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
 • Lantegitik zure etxera zuzenean
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

beatriz
 oinetakoak eta poltsak
 Erdiko kale, 11
 Tfnoa: 79 14 33
 ARRASATE

Jose Mari Loiti (EAJ-PNV)

Alkatetza berreskuratu nahian

EAJko alkategaia.

Adina: 56 urte.

Ezkondua. Seme bat du. Maisu industrialia. Oñatiko Oinakar enpresan ari da lanean.

Afizioak: Basoan ibiltzea eta futbola ikustea.

-Zeintzuk izango dira EAJren programaren ardatzak?

- Arrasateko arazo txiki ugari du eta horiei irtenbidea ematen ahaleginduko gara. Epe motzera begira, egitasmo orokorrenkin jarraituko dugu eta hori egitean, Arrasate Deba Garaiko zentrua izatea eta biztanleriaren beherakada gelditzea lortu behar dugu. Bestalde, arlo sozioekonomikoa ere garatu nahi dugu eta horretarako CIE eta CEI-ren eraketa bultzatuko dugu. Jakina, hezkuntza eta euskarari buruzko gaiek garrantzia izango dute gure programan.

-Zein emaitza lortzea espero duzue?

- 3.000 boto baino gehiago lortzea da helburua. Gure ustez lan ona egin dugu eta

nolabait esanda azterketa eginda dagoenez, maiatzaren 28an nota ona izatea espero dugu.

- Zein alderdik osatuko dute hurrengo gobernu taldea?

- Ez da erraza hori erantzutea. Jendeak zera galdetzen du: Eusko Jaurlaritzako tripartitoko funtziona dezake hemen ere? Hori espero dugu.

- EAJren helburua alkatetza berreskuratzea da?

- Bai, baina horretarako botoak behar ditugu eta boto kopuruaren arabera ikusiko dugu zer egin daiteke-

en. Ikusten badugu herriko gehiengoaren onerako akordio batzutarra heldu behar dela, ba hori egingo dugu.

- Azken lau urteotan zinegotzia izan zara. Zer moduzko esperientzia izan da?

- Hirigintza saila zuzentzea gogorra izan da, obrak direla eta gorabehera asko sortzen da eta. Hala ere azkenean ahaleginak pena merezi izaten du.

- Zer da EAJk eskain dezakeena?

- Esperientzia dugu arlo desberdinetan eta gure alderdia Diputazioan eta Eusko Jaurlaritzan dagoenez, hori abantaila da.

- Zer esan dezakezu EAJren zinegotzigaiei buruz?

- Bi pertsona azken legealdian aritutakoak gara beraz, esperientzia dugu. Beste bat, berriz, auzo alkate izandakoa da eta aportazio hori garrantzitsua da. Gainera, gazteei dagozkien gaiekin harremana izateko pertsona gazte bat ere bada gure zerrendan.



Jose Mari Loiti (Euzko Alderdi Jeltzalea)

■ EAJko zerrendaren aurkezpena

Hautagaien aurkezpena egin zuen EAJk joan den zapatuan. Zerrenda hau da: Jose Mari Loiti, Francisco Javier Aresti, Maria Angeles Iñurra-tegi, Miren Itxaso Garai, Andoni Bedialauneta eta Agustin Ugarte. Aurkezpen ekitaldian Joseba Egibar izan zen. Hautagaiei herrigintzan aritzeko konpromezua hartzeagatik eskerrak eman ostean, Arrasateko Udalak aldaketa beharra duela adierazi zuen Egibarrek.

■ Hasteko gertu

• HBko komite lokalak eta Udaleko zinegotzi taldeak asanblada egin zuten joan den ostegunean. Asanbladan HBren programa eman zen ezagutzera. J. J Saez zinegotzigaiek azaldu zuenez, Arrasateren industrial nortasunari eustea litzateke helburuetariko bat. Horrez gain, ekitaldien berri ere eman zen. Maiatzaren 16an mitina izango da eta Xabier Zubizarreta eta Iñigo Iruin arituko dira hizlari, arratsaldeko 7.30etan, Herriko Plazan.

• Bihar, larunbata, programaren aurkezpena egingo du Arrasateko EAJk eta Roman Sudupe, Gipuzkoako Diputazioarako hautagia ere etorriko da Diputazioarako asmoen berri ematera. Ekintza hau eguerdiko 11.30etan hasiko da Monterronen.

• Maiatzaren 16an, berriz, Zutik-ek kanpainaren aurkezpena egingo du Monterronen, arratsaldeko 6.30etan.



* Liher Larrea

Firili ta farala

“**F**irili ta farala soinu bat, bi soinu /pandero kaskarinak ondoan lagundu/bi soinu, ondoan lagundu / elkarren konpasean giroa seguru.” Hala dio Maixa eta Itziarren porrusaldak, eta hain zuzen, giro hori zabaltzen ahaleginak egin ditugu Arrasateko Trikitixa Eskolakook azken sei urteotan.

SUDC elkartearen ekimenez 1988ko irailean soinu-txiki (trikitixa, akordeoi diatonikoa) ikastaroa antolatu zenetik, makina bat auspo zarata eta narru hots entzun da Arrasaten. Bilakaera izugarria izan da, orduko ikastarotik oraingo eskolaraino; hasierako hogeitamar ikasletik egungo ehun eta berrogeitamar ikasleraino; ia trikitixarik entzuten ez zen Arrasateetik gaurko Arrasateraino.

Jendearen harrera oso ona izan da, alde batetik, pertsona ugari ari delako jotzen ikasten, eta bestetik, leku askotan eskatzen dituztelako trikitilariak. Hori dela eta, zoko-moko guztietan egon ohi da soinujole edo panderojoleren bat: herriko edo auzoko jaietan, afari-bazkarietan, gizarte ekintzetan, edo besterik gabe herria alaitu behar denean. Herria alaitzea,

.....

“Helburua ahal bezain ondoen betetzera animatu nahi nituzke trikitilariak, eta herritarrak berriz, lotsa alde batera utzita gure erritmoan dantzatzeko egitera”

inguruko jendea dantzatzeko eta kantuan jartzea, hori izaten da trikitilarion helburua, eta hori lortzeko alaitzen gaitu gu ere. Horregatik, helburu hau ahal bezain ondoan betetzera animatu nahi nituzke soinujole eta panderojole guztiak, eta herritarrak berriz, lotsa alde batera utzita trikiti soinuaren erritmoan dantzatzeko egitera.

Soinua jo eta dantzatzeko biak egin beharko ditugu datorren larunbatean, hilaren 20an trikitilari eta trikitizaleok. Trikitixa Eskolako ikasle, senide eta lagunentzat urtero antolatzen dugun Egun Mundialean. Denetarik izango da: mendizale eta martxosoentzat Belamendira (Tellamendiren jatorrizko izena) ibilaldia; ohezale, hankamotz eta lanpetuekin batera hamaika terdietako Gara-gartzan; futbol partidua; bazkaria (Gogoan izan, bazkariarako txartelak hartzeko azken eguna datorren astelehena 15 dela) eta bazkalosteko umorea, musika eta jolasak.

Firili ta farala, giroa seguru!

* TRIKITILARIA

JOSE RAMON ELORTZA

USTEAK USTE

ALKATEEN ALDE

Nork esan zuen gure Euskalerrri hau triste bizi zela? nork esan umorerako tokirik ez zegoela?

Ba, ez. Noizean behin entzuten diren gauza batzuk parregurea sortzen digute. Badaude, bai, horretarako behar den txispa berezia duten elementu batzuk. Hona hemen azkena, Donostiako fiskal nagusiarena: zenbait herritako alkate epaitzeko asmoa azaldu du.

Zer dela eta? Objazio eta intsumisioa direla eta, ejerzitoak beharko lituzkeen gazteen zerrendak eman ez dituztelako.

Ederra, bitxia benetan, atzetik etorriko zaiguna. Martxa honetan, laister herriko gehiengo bat epaituko dute, batez ere politikari batek eskatutako solidaritate eta erantzunkidetasuna denok azaldu ezker.

Beharbada, beste helburu batek bultzatuko zuen horrelako erabaki bat hartzea. Beharbada, horrelako neurri baten bitartez gure gizartearen dugun langabezia konpon zitekeela pentsatuko zuen.

Ez litzateke soluzio txarra: jende asko gartzelara, eta geldituko liratekeenak beharko liratekeen gartzelak eraikitzen jarri.

Eta hau dena pakea defendatzeagatik, munduko ejerzito guztien aurka egoteagatik.

Gazte eta ez hain gazte, asko gara, bai, benetako pakearen alde gaudenok.

LAN ESKAINTZA

Astebukaerretarako **Dukierna Jate-txeak** zerbitzari baten beharra du. Harremanetarako dei egin (945) 44 50 86.



- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...


Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

Ramón Ollor-en konpainia

METROS
dantza taldea

“Miénteme por favor”



Amaia Antzokian • Maiatzaren 13an, larunbata
Gaueko 10.30etan
Sarrera: 700 pta (Gazte Txartelarekin: 500 pta)



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Arrasateko Udala
Kultura Saila

95-5-15 Astelehena

Hitzaldia: haurrekin nola jolastu

Zuzendua: Guraso eta irakasle guztiontzat.

Tokia: S. Viator

Haundiko Aretoan (3. solairuan).

Ordua: Arratsaldeko 6:30etatik 8:00etara.

95-5-16 Asteartea

Sesio Praktikoa: mantenimendu gimnasia

(Bizkarrezurreko Ariketak barnean direlarik).

Zuzendua: Kirol Eskolako haurren gurasoentzat.

Tokia: S. Viator

Haundiko Gimnasioan.

Ordua: Arratsaldeko 6:30etatik 8:00etara.

95-5-17 Asteazkena

Hitzaldia: bizi kalitatea gaur egun

Elikadura, ariketa fisikoa, higiena, atsedena, e.a.

Zuzendua: Guraso eta irakasle guztiontzat.

Tokia: S. Viator

Haundiko Aretoan (3. solairuan).

Ordua: Arratsaldeko 6:30etatik 8:00etara.

95-5-18 Osteguna

Sesio Praktikoa: kirol alternatiboak

Mantenimendu gimnasia.

Erlajazioa.

Zuzendua: Kirol Eskolako haurren gurasoentzat.

Tokia: S. Viator

Haundiko Gimnasioan.

Ordua: Arratsaldeko 6:30etatik 8:00etara.

95-5-19 Ostirala

Diapositiba emanaldia, argazki erakusketa, video emanaldia eta lunch-a

Zuzendua: Guraso eta irakasle guztiontzat.

Tokia: S. Viator

Haundiko Areto

Nagusian (3. solairuan).

Ordua: Arratsaldeko 6:00etatik 8:00etara.

95-5-20 Larunbata

Kirol ihardunaldiak guraso eta ikasleen artean

Zuzendua: Guraso, ikasle eta irakasleentzat.

Ordua: 10:30etatik

13:00etara.

95-5-21 Igandea

Mendi irteera

Zuzendua: Guraso, ikasle eta irakasle guztiontzat.

Nora: Inguruko mendi batera.

Ordua: 10etan.



**Maiatzaren
15etik 21era
Gurasoei
zuzenduta**



**KIROL
ETA
OSASUN ASTEA**





Guztira 46 pleno egin dira azken lau urteotan.

Ostiralekoa izango da Udalbatzaren azken plenoa

Azken lau urteotako zinegotziek azken udal plenoa burutuko dute gaur. Alkatea hautatzeko 1991ko ekainaren 15ean egin zen bilkuraren ondoren, uztailaren 15ean egin zen oraingo Udalbatzaren lehen plenoa. Orduetik eta gaurkoa kontatuz, guztira 46 pleno egin dira, horietatik hamabi ez ohikoak edo bereziak. Plenoen iraupenari dagokionez, esan behar lau urteetako luzeena aurtengo apirilaren 11n egin zena izan zela, lau orduko iraupenaz.

Gaur egingo den udal plenoan hogeita puntu aztertuko dira. AUKEAren zuzendaritza batzordean erabiltzaileen ordezkari izen-

datuko du plenoak Jose Mari Odriozola, kargu horretarako bera bakarrik aurkeztu da eta.

Larrialdietarako udal lantaldea sortzearen asmoa ere berriz aztertuko da. Otsailaren bukaeran egin zen plenoan gai hori aztertu zen baina hutsuneak ikusi zirenez, mahai gainean geratu zen proposamena. Denbora tarte honetan zerbitzu batzordeak berriz ere gertatu du araudia eta baliteke larrialdi taldea sortzeko proposamena aurrera irtetea, aurreko plenoan zinegotzi gehienak ez ziren-eta aurka azaldu. Onartuko balitz, herrian gerta daitezkeen sute, uholde eta larrialdiei erantzutea

izango litzateke zerbitzu berriaren helburua, horretarako Udaletxeko hamarren bat bolondresak osatuko lukete lantaldea, brigadetakoa eta udaltzaingoko langileek batez ere.

Ohi bezala, hirigintzako gaiak ere aztertuko dira eta garrantzitsuen egitamu orokorra idazteko irizpideak zehaztea izango da. Iradokizunak jaso eta aztertu ondoren, erizpideak finkatuko dira eta horrekin beste txosten bat egingo da berriz ere jendaurrean jartzeko. Bestalde, Mugarritten Udalak duen lurzoru industrialak salgai jartzea eta etxebizitza bat erostea eztabaidatuko du udalbatzak.

UCEM Arrasate bitan banatuta

Zerrajera eta Transformadoseko langile gehienak, Zubizarreta Kontsultorak aurkezturiko planaren alde azaldu dira. Asteartean erreferendum-a egin zen UCEM Arrasaten eta botoa eman zuten 164 langileetatik, 103 gestoreen eta ELA sindikatuaren alde azaldu ziren. Era horretan, hemendik aurrera Zerrajera eta Transformados bi enpresa izango dira eta orain lanean dauden 172 langileetatik cerraieran 47 geratuko dira eta Transformadosen 38. Beste 35ek borondatez joatea erabaki dutenez, kanpoan geratuko liratekeen 51 langileak UCEM Arrasatetik eratuko litzatekeen boltsa baten sartzea aurrikusten da.

CC.OOek, berriz, langabeziaren errotazioa eginez, 137 langileetako lan taldea eta enpresa bakarra mantzentzearen aldeko proposamena aurkeztu zuen eta 60 langilek honen aldebozkatu zuten. LABek askatasuna eman zien afiliatuei nahi zuten aukeraren aldeko botoa emateko eta UGTkoak CC.OOenaren alde azaldu ziren.

Inkesta herritarrei

Gutxi barru inkesta bat egiten hasiko da Diputazioa Arrasaten. Udalak prestatzen dituen zerbitzuen inguruan zein iritzi duten galdetuko zaie mondrauetarrei. Ikerketa hori Gipuzkoako beste hamar herritan ere egingo da.

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

JUAN IGNACIO MONTIANO Dk.

PEDIATRA

"San Martin Osasundegia"
'Ramón M^e Lili, 2

BERGARA
Tfnoa: 76 59 39 Faxa: 76 25 72

Bazar
TOKI ON

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



Gaur eguerdian deklaratu behar zuten Xabier Zubizarretak Bergarako epaitegian.

Alkateak ez du epailearen aurrean deklaratzeko asmorik

Soldadutzarekin ez kolaboratzeagatik, Donostiako Fiskaltzak jarritako salaketari ez erantzutea erabaki du Xabier Zubizarretak. Arrasateko alkateak gaur deklaratu behar zuten Bergarako Epaitegian baina asteartean, epaiketara ez agertzea erabaki zuten salaketa jaso duten Herri Batasunako 16 alkatek. Martitzenean, L. Navajas, Donostiako fiskal nagusiarekin bildu ziren HBko alkateak eta "kriterio politikoz eginda dauden zitazioak direnez" ez deklaratzera erabaki dutela adierazi zien. HBko alkateen ustez, "soldadutzarekin kolaboratzeari uko egitean


herriaren nahia ordezkatzan ari gara eta beraz, ez dugu hutsik egiten. Legea da aldatu beharko litzatekena". Espainiako Kode Penalak kargugabetzearekin eta 100.000 pezetatik 500.000 pezetarainoko isunarekin zigortzen du delitu hau. Iaz, sei urteko kargugabetzearekin zigortu zuen Nafarroako Probintzi Auzitegiak Bargotako alkatea.

Iazko martxoan antimilitaristek aurkezturiko mozioa onartu zuen Arrasateko Udaltzatzen. Horren arabera, ejerzitoari gehiago ez laguntzea eta gazteen izen-hartzeari uko egitea erabaki zen besteak beste.

Jon Salaberri hil egin da

Asteartean, arratsaldeko 3etan, Jon Salaberri arrasatearra hil zen HIES-ak jota. HIES-aren inguruan lan handia egindu eta aurpegia eman zuenez, Jon Salaberri oso ezaguna egin zen Euskal Herri osoan. Arrasateko HIES Eki-meneko sortzaileetarikoa izan zen eta ordu asko eskaini zizkion elkarte horri. Orain hama bi urte jakin zuen HIES-a zeukala eta ordutik, batez ere azken urteetan, hainbat gainbehera izan ditu. Hala ere bizi izaten jarraitzeko nahiari eutsi zion azken momentura arte.

Jonek 34 urte zituen eta bere etxean, Arrasaten, hil zen. Bere nahiari jarraituz, gorpua erre egingo dute.



Jon Salaberri.

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

GORKA

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE


Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Biona tabernan "Partxis" txapelketa egon da jokuan hilabete hauetan. Ostegunean, finala jokatu zen eta Maider Ruiz eta Iñaki Maidaganen bikotea izan zen irabazlea. Bigarrenak Aramaioko Induspe eta Nere Gardoki geratu ziren. Txapelketan 35 bikotek hartu du parte.

Xabi Akizu arrasatearra **Biolur** elkarteko partaidea da eta beste lagun batzurekin Kataluinara joan zen auzolanean argazkian ikusten duzuen horma egitera. Estatu mailan nekazaritza biologikoaren bultzatzailetarikoa da Serafin San Juan eta uholdeak horma bota ziotenez, Biolurrekoek berreraikiten lagundu zioten. Laguntzaren truke agujeta ikaragarriak ekarri ei zituzten. Eserita: Jesus, Karmen eta Xabi. Zutik: Sara eta Serafin.



IZEN PROPIOAK

● ASAk antolatutako diapositiba rallyko irabazleak hauek izan dira: argazki bilduma onenaren saria **Karmelo Uribarren**ek jaso du, **Sebas Lozanok** argazki onenarena eta **Monika Monterok** 2. argazki onenarena.

● **Olatz Garaik** 23 urteko arrasatearra Deba Garaiko jatetxeetan sentsibilizazio kanpaina burutuko du, jatetxeetan menua, fakturak eta abar, euskaraz ere egon daitezen. Kanpaina egin ondoren, Deba Garaiko jatetxeen liburuskara egingo du. 120 jatetxeetako menuak euskaratuta, informazioa eta errezetak osatuko dute Jatetxeen liburua.

● **Ainhoa Mendarozketa** da Egunkaria jaiaren arduraduna Arrasaten. Herriko talde guztiak dinamizatu eta ekintzetan parte har dezaten ardura izango du. Enpresa zientziak ikasi du Ainhoak.

BIZIKLETA MARTXA GETXOTIK IRUÑERA EUSKAL HERRIA BIZI DADIN


MAIATZAREN 16ko EKITALDIAK

- Arratsaldeko 6etan: Bizikleta martxari ongietorria Ziarrolan, San Isidro parean.
 - Arratsaldeko 7etan: Mitina herriko enparantzan. Arrasateko trikitilariek emango diote hasiera.
- Hizlariak: Xabier Zubizarreta eta Iñigo Iruin.



 **HERRI BATASUNA**

ARRASATE ABERTZALE ETA EZKERTIAR



San Andresko Gazte Txokoko gazteek mozorro tailerra antolatu zuten jaietan. Gaztetxoenek primeran pasa zuten mozorroak egin, ilea eta aurpegia margotzen. Gaztetxoenak izan ezik, nagusiak ere umeen pare ibili zirela jakin dugu.



San Viator ikastolako ikasleak izan genituen bisitari Arkon ostiralean. Komunikabideen gaia aztertzen ari dira eta ARRASATE PRESS eta Arrasate Telebista nola egiten diren ezagutzeko etorri ziren. Ikasiko zuten zerbait berria?



Jose Manuel Jumco eta **Lourdes Llopis** martxoaren 18an ezkondu ziren. Ezkon bidaian Tenerifera joan dira. Zorionak bikote!

Patxi eta **Maribel** arrasatearrak Dorletako Santutegian ezkondu ziren apirilaren 30ean. Gure Ametsan izan zuten bazkaria eta Thailandiara joan dira ezkon-bidaian. Zorionak!




LASO



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

Futbito 94-95

Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Hirugarren fasean sorpresa ugari Zaldibarren

Hirugarren faseko lehen jardunaldia jokatu zen astebukaeran. Zortzi neurketa jokatu ziren guztira eta ezusteko emaitzarik ere izan zen. Argi Ibilik astindu galanta eman zion Mikelosi 7 eta 1 irabaziz. Trikitik galdu egin zuen Cerveceria Leintz taldearen kontra eta hurrengo fasera sailkatzeko aukera gutxi du. Datorren domekan Trikitik eta Irati STSk elkarren kontra jokatuko dute eta Trikitik derrigorrez irabazi behar du final-laurdenetarako sailkatu ahal izateko, Irati STSk,

jakina, ez dio erraztusunik emango. Bestalde, Sokoakoak eta Zuloaken arteko neurketa 3ko berdinketaz bukatu zen.

Lehen jardunaldia jokatu eta gero, zazpi talde ditugu bi punturakin: Argi Ibili, Forforos, Cerveceria Leintz, Irati STS, Suministros Ugarte, AC Surcos eta Adelaida Haizea.

Bi jardunaldi barru final-laurdenei emango diote hasiera eta multzo bakoitzetik bi talde baino ez dira sailkatuko.



**Felipe
Arrizabalaga
AROSZTEGIA**

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Hirugarren fasea

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	1	1	0	0	7	1	2
FOSFOROS	1	1	0	0	4	2	2
LOS HEREDIA	1	0	0	1	2	4	0
MIKELOS	1	0	0	1	1	7	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
CERVE. LEINTZ	1	1	0	0	4	2	2
IRATI STS	1	1	0	0	6	4	2
ORLANDO PIRATAS	1	0	0	1	4	6	0
TRIKITI	1	0	0	1	2	4	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUMIN. UGARTE	1	1	0	0	6	2	2
SOKOAKOAK	1	0	1	0	3	3	1
ZULOAK	1	0	1	0	3	3	1
EQUUS BTR	1	0	0	1	2	6	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	1	1	0	0	3	0	2
ADELAIDA HAIZEA	1	1	0	0	2	1	2
TOTEM	1	0	0	1	1	2	0
PERRAHOTSA	1	0	0	1	0	3	0

Uribe auzoako Futbito Txapelketa

A Taldea	B Taldea	D Taldea	E Taldea	F Taldea
Exca. Lete12	Arrasate Kirolak.....12	Uglys Txinato13	Kamasutra.....12	Salenco y Konpañia13
Leya.....11	Jotakabau11	Equus BTR.....10	The Barrio10	Lautherbrunnen11
Berza Mutante.....10	Tronkoteak10	Los Dimy8	koka Juniors 9	Bodega Anboto9
Numar Txiki9	Blacburn9	Ke Oxtias.....7	Hirei.....9	Gallinero9
A Las 9 No8	Eztanda egin arte8	Balon Rojo.....7	Dribling9	Txeyenex.....7
La Banda.....7	Trotabares6	No Comment.....7	Borrock'n Roll Prom.8	Sukar.....6
Energizer.....4	Los Intocables5	Zigarrolako6	Ganbelas.....5	Elisabeth5
Borrock'n Roll3	Baneuko5	Arrasate Zoo6	Extintors Foruen.....4	Iluna Taberna4
DKB.....3	Pier Nodoyuna2	Astoen Billa3	Telleria Auto eskola ..2	corazon De Encina...4
Holokaustro Kanibal.3	Amaral.....2	Garajauke 1	Lo + X.....2	Berango Sulkaldeak.4
CD ARKO.....0	Orkatz.....0	Eman Bidea.....0	Kurtze Txiki0	Euskal Suporters.....0

AEDko Gazteen Nesken Liga

Txakolintxintxau.....8	Zeppasstandon.....4	Orkatz2	Karpe Diem3
Las Mels8	Izenbakuak4	Ireklas0	
Joixon Bertan.....5	Zure Atzetik3	B.G0	



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Argiztapena
- * Instalazioak
- * Bobinaketak
- * Automatismoak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

ZALDIBARKO EMAITZAK

A taldea

Argi Ibili 7 - Mikelos 1
Los Heredia 2 - Fosforos 4

B Taldea

Irati STS 6 - Orlando Piratas 4
Cer Leintz 4 - Trikiti 2

D Taldea

Zuloak 3 - Sokoakoak 3
Sum Ugarte 6 - Equis BTR 2

E Taldea

Adelaida Haizea 2 - Totem 1
Perrahotsa 0 - AC Surcos 3

BELARRIRA

◆ **Ordutegiak.** Zaldibar-ko taldeek partiduak jokatzeko eguna eta orduak eskatzen dituzte. Antolatzaileei ondo iruditzen zaie eskakizunak horiek egitea, baina askotan tezin dituztela aldean nahiak bete esan digute. Normalean taldeek ordu berean jokatu nahi dute eta kantxa bakarra dagoenez ezinezkoa izaten ei da denen gustoa betetzea. Antolatzaileek taldeei egoera ulertzeko eskatu diete.

◆ **Jendez gainezka.** Partiduak jokatzen direnean Zaldibar jendez gainezka egoten da eta berdin Ferixalekuko kantxa nesken liga jokatzen denean. Futbitoak jende asko erakartzen duela argi eta garbi dago.

◆ **Uribetik kanpo.** Uribe Auzoa txapelketan E taldeko Kurtze txiki taldea ez zen aurkeztu partidura eta txapelketatik kanporatu dute.

◆ **Nesken Liga.** Zeppas-tandon eta Izenbakuen arteko norgehiagoka ezin izan zen jokatu zapatuan eta ostirale-
ra atzeratu da. Ostiralean arratsaldeko 5etan jokatuko da.

URIBE AUZOKO EMAITZAK

A Taldea

Borroak'n Roll 0-Exc Lete 6
Holokaustro Kanibal 8 - CD Aeko 6
Berza Mutante 4 - A Las 9 No 2
Laya 1 - DKB 1
Energizer 3 - Munar Txiki 6

B taldea

Arrasate Kirolak 2 - Jotakabau 2
Eztanda egin arte 8 - Trotabares 4
Orkatz 3 - Tronkoteak 11
Baneuko 4 - Pier Nodoyuna 0
Amaral 3 - Los Intocables 3

D Taldea

Uglus Txinato 8 - astoen Billa 0
Ke Oxtias 2 - Equis BTR 5'
Eman Bidea 4 - Arrasate Zoo 9
Balon Rojo 0 - Los Dimy 1
No Comment 9 - Garajauke 1

E Taldea

Borroak'n Roll Prom 1 - Kurtze txiki 0

Kamasutra 5 - Koka Juniors 2
Telleria Auto Eskola 4 - Lo + X 8
Extintors Foruen 1 - Dribling 5
Ganbelas 3 - Hirei 3

F Taldea

Corazon De Encina 0 - Salenco y konpa-
ñaia 11
Gallinero 9 - Iluna Taberna 4
Lautherbrunnen 9 - Bodega Anboto 0
Berango Sukal. 1 - Elisabeth 4
Euskal Suporters 2 - Sukar 4

**AEDKO GAZTEEN
NESKEN LIGEN EMAITZAK**

Orkatz 4 - Las Mels 5
B.G 1 - Zure atzetik 3
Joixon Bertan 3 - Ireklas 2
Karpe Diem 0 - Txakolintxintxau 1

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihoretan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

ASTEBURU HONETAN ZALDIBARREN



Larunbata 13

Zaldibar

- 10.00 Suministros Ugarte - Sokoakoak
- 11.00 Zuloak - Equis BTR
- 12.00 Cerv. Leintz - Orlando Piratas
- 16.00 Los Heredia - Mikelos
- 17.00 Argi Ibili - Fosforos

Igandea 14

Zaldibar

- 10.00 Adelaida haizea - AC Surcos
- 11.00 Perrahotsa - Totem
- 12.00 Irati STS - Trikiti

ASTEBURU HONETAN URIBEN

Larunbata 13 • Iturripe A

- 10.00Leya - Energizer
- 11.00Balon rojo - No Comment
- 12.00Borrock 'n Roll Prom - Koka Juniors
- 13.00Salenco y Konpañia - Sukar
- 14.00Borrock 'n Roll - CD Arko
- 15.00Orkatz - Pier Nodoyuna
- 16.00The Barrio - Lo + X
- 17.00Arrasate Kirolak - Trotabares
- 18.00Teleria Auto Eskola - Dribling
- 19.00Uglys Txinato - Equis BTR

Iturripe B

- 14.00Corazon de Encina - Iluna Taberna
- 15.00Berza Mutante - DKB
- 16.00Baneuko - Amaral
- 17.00Extintors Foruen - Ganbelas
- 18.00Exc Lete - Munar Txiki
- 19.00Txeyenex - Sukar

Igandea 14 • Iturripe A

- 10.00Jotakabau - Los Intocables
- 11.00La Banda - A Las 9 No
- 12.00Lautherbrunnen - Elisabeth
- 13.00Zigarrolako - Arrasate Zoo

Iturripe B

- 10.00Berango sukaldeak - Euskal Suporters
- 11.00Eman Bidea - Los Dimy
- 12.00Blacburn - Tronkoteak
- 13.00Astoen Billa - Garajauke



Zaldibar txapelketa bero bero dago. Aste buruan hirugarren faseko bigarren jardunaldia jokatu da eta neurketa guztiak interesgarriak bezain biziak izango dira. Jokuan bi puntu eta hurrengo fasera pasatzeko aukera daude.

ASTEBURU HONETAN NESKEN LIGAN

Zapatua 13 • Ferixalekuan

- 9.00 Zure Atzetik - Karpen Diem
- 10.00 Joixon Bertan - Orkatz
- 11.00 Txakolintxintxau - Zeppasstandon
- 12.00 Ireklas - Las Mels
- 13.00 Izanbakuak - B.G



Kamiseta bateaz oparituko zaitugu!

Argi ikusten ez baduzu, zatoz MULTIOPTICASera. Zure eguzkitako betaurrekoak preziorik distiratsuenan graduatuko dizkizugu. Montura eta graduaturiko kristalak **9.800 pezetan**. Argi ikus dezazun. Eta beti MULTIOPTICASen garantiarekin, zure zerbitzura 450 baino optika gehiago dituen 1. mailako Zerbitzu Optikoa.

9.800 PEZETAN


MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA


ZERBITZU BERRIA 1995-96 IKASTURTERAKO!!

Bazkalostean eta 4.30etatik 6etara etxerako-lanak
Mediateka berrian egiteko aukera izango duzu.



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

BEmerako matrikula oner maitzaren 4tik 18ra



Arrasateko OSASUN GIDA

ALBAITARIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L.Iñarra, 24-Behea ☎79 74 89
ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ☎79 15 31

ALERGIA ETA ASMA

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43..... ☎79 81 00 / 79 81 11

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎77 12 63

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

SERRANO DOKTOREA Kalealdea, 11- behea (Asteazkenetan)..... ☎79 65 78

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎77 03 96

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ☎79 20 18

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ☎77 06 22

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎79 25 98
GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29..... ☎79 16 98

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1..... ☎77 00 40

● *Mikel Azaola*

Arrasate hirugarren munduari begira

Hirugarren munduko herriekin ahaztu barik, Arrasateko Udalak ere ematen du laguntzarik pobrezian bizi diren herrientzat. Aurrekontuen zati bat, 3. munduari laguntzeko egiten diren proiektuendako gordezten da. Iaz diru hori Euskal Fondoak, ONGak jasozuen eta diru hori zertan erabili duten azaltzera etorri zen Mikel Azaola, Euskal Fondoaren proiektua aurrera eraman duen arduradunetarikoa bat.

– Zer da Euskal Fondo eta zuk zer harreman duzu talde horrekin?

– Euskal Herriko udalerrri batzuk osatzen duten ONG-a da eta helburua 3. munduan garapen proiektuak aurrera eramatea da. Ni neu Tecnodes izeneko ONG-ean ari naiz lanean eta talde honetan beste ONG batzuek egiten dugu lan. Beste taldeei proiektuak garatzen laguntzen diegu baina geurek ere baditugu.

– Zerk ekarri zaitu Arrasatera?

– Arrasateko Udalak finantzatu duen proiektu bat garatu dugu Euskal Fondo-


rentzat eta gauzak nola joan diren kontatzera etorri gara Arrasatera. Uruguayko zentru kooperatibistak laguntza eskatu zion E.F-ari, nekazal sektorean aldaketa batzuk egin nahi dituzte-eta. Behien esne produktioetik ahuntzen esne produktiora pasa nahi dute eta hemengo esperientziak ezagutu nahi izan dituzten ezertan hasi baino lehen. Guk Estatuan dauden zentru desberdinak bisitatu ditugu, sektore hau errentagarri izateko zein aldaketa egin duten edo zelan antolatzen diren jakiteko. Asturias, Errioxa, Extremadura eta Salamancan dauden ahuntz esplotazioak ikusi ditugu.

– Zenbateko dirulaguntza eman du Arrasateko Udalak?

– 700.000 pezetako laguntza luzatu zuen Udalak baina beste zati bat Tecno-desek eman du.

– Zein izango da hurrengo pausua?

– Zentru Kooperatiboko teknikoei ikusitakoaren berri emango diegu eta eurek erabakiko dute aurrera jarraitu ala ez. Iparraldetik ezin dugu Hegoaldea zuzendu, ezin ditugu ezeregitara behartu. Orain arte askotan laguntza eman diegu baina gurekiko depen-



dentzia sortuz eta hori ez da ona izan. Hegoaldeak erabaki behar du zelako garapena nahi duen eta eurek zuzendu behar dute garapen hori.

– Arrasateko Udalak ez du aurrekontuen %0,7a hirugarren mundura zuzentzen. Zer iruditzen zaizu?

– %0,7arena apur bat moda bat da. Ez dakit Udalak zenbat ematen duen baina garrantzitsuen hirugarren munduarekiko elkartasuna edukitzea da.

– Hirugarren munduari laguntzeko era aldatzen ari da.

– Bai, arropak eta janaria ematetik garapenerako laguntza ematera pasa gara, baina gaur egun biak dira beharrezkoak. Egoera kon-

ketu batzutan, une txarretan batez ere arropak edo janaria emanez lagundu beharko diegu. Nire ustez beharko, garapenetik etorri litzateke hirugarren munduko herrien aldaketa.

– Zein arazo du 3. munduak?

– Hirugarren mundua oso handia eta desberdina da eta arazoak ugariak dira. 3. munduko herri askok baliabide natural ugari du baina gaur egun mundua antolatuta dagoen moduan, edukitzea baino produktuak trasformatzea garrantzitsua da. Horrek eragina du euren egoera ulerterako orduan.

– Herrietan sortzen diren taldeek ondo egiten dute lan?

– Ez dakit ondo edo txar to egiten duten lan, tokian tokioa aztertu beharko litzateke. Nire ustez jendea kontzientziaztea garrantzitsua da, ez gaitzean ahaztu Hegoaldea hor dagoela.

● **“Iparraldetik ezin dugu Hegoa zuzendu, ezin ditugu ezer egitera behartu”.**

Patxi Gorosabel

Jokalari eta entrenatzaile

Patxi Gorosabel rugby jokalaria Athletic Bera Bera taldean hiru denboraldi egin ondoren, 35 urterekin talde donostiarra utzi behar du. Rugby kirola baino zerbait gehiago da Zabaleta baserriko seme honentzat eta jokalaria izateari agur esan behar dion arren, rugbyaren aldean egiten jarraituko du Arrasaten.

- Noiztik rugbyan eta zerk bultzatuta?

- Kuadrilakoak bultzatuta hasi nintzen rugbyan. San Viator ikastolan ikasten nuen eta taldeko lagun batzuk rugbyan jokatzen zuten animatu nintzen, kostata baina animatu eta 14 urtekin hasi nintzen.


- Hasi beraz Arrasaten, ezta?

- Bai, etxeko taldean hasi nintzen, Arrasate Rugby taldearekin Euskal ligan eta urte betez lehen mailan jokatu nuen. 92ko denboraldian, osera, Athletic Bera Beratik deitu eta bertara joan nintzen. Donostiako taldean ohorezko mailan jokatzen hiru urte igarorot. 21 urte daramatzat rugbyan guztira.

- Rugbyan bizi izan dituzun unerik onenak eta txarrenak?

- Txarrenak lesioak izan dira. Duela zortzi urte radioa apurtu nuen eta ebakuntza egin zidaten. Arrasateko rugby taldea 12 hilabetez desagertu zenean ere txarra izan zen. Onenak egin ditudan lagunak izan dira eta baita Selektzioarekin eta Super ligan jokatzea ere.

- Rugbyan urrutien heldu den arrasatearra zara, arro



Patxi Gorosabel lehen mailako rugby jokalaria

zaude ?

- Arro eta pozik egoteko arrazoirik badut. Dena dela Arrasaten nik egin dudana egiteko jokalaria badaude la uste dut. Esatebaterako nire lehengusua Sebas eta Imanol Ayastui, ibili ziren goi mailan jokatzen baina utzi egin zuten. Ni naiz azkenera arte jarraitu dudana bakarra.

-Ze postutan jokatzen duzu eta zeintzuk dira zure ezaugarriak?

- Bigarren lerroko aurrelaria naiz eta nire ezaugarriak indarra eta teknika dira. Rugby jokalaria konpletua izateko indarra eta teknikaz gain, erresistentzia eta azkarrata izatea garrantzitsua da.

-Zer irudituz gertatu zuten omenaldia?

- Oso ondo eta pozgarria izan zen. Athletic Bera

Bera zein Arrasate taldeetan lagun handiak ditut eta horrelako omenaldi bat egitea beti da hunkigarria. Hala ere, Donostiako taldea utzi beharrrak pena ematen dit,

- Arrasateko rugby taldean lan egiteko asmorik baduzu?

- Bai, jakina. Arrasatera entrenatzaile izateko nator eta noizean behin jokatu ere egingo dut. Nire helburua taldea berriro Euskal Ligara igotzea da. Aurten denboraldi txarra egin dute eta erregionalerara jeitsi dira baina datorren urtean goian ikusi nahi dut taldea. Horretarako gogorlan egiteko asmoa daukat eta Athletic Bera Bera taldeetik ere entrena-tzaileak etorriko dira laguntzera. Ea guztion laguntzaz Arrasateko rugby taldea egon behar den lekura igotzen dugun.

Arrasate Oñati lasterketa

Arrasate-Oñati herri lasterketaren XIII. edizioari Portaloitik emango zaio hasiera domekan goizeko 11etan. Aurten hirugarren urtea da lasterketa "Jantzi kirola Euskaraz" lemapean antolatzen dela, 1993an Laixan elkarteak AEDkoen laguntzaz eta "Astora" firmaren babesaz antolakuntzaren erlebo hartu zuen eta.

Izena ematea 1.000 pezeta da eta lasterketa hasi baino lehen egin daiteke irteeran bertan. Parthartzaileek kamiseta bat jasoko dute oparigisa. Errekorra Diego Garcia du, eta errekor hori hausten duenak 20.000 pezetako saria izango du. Autobus zerbitzua egongo da, Oñatitik goizeko 9.30etan, baita itzul-tzeko ere.

Mondra - Touring Atxabalpen

3. mailako Mondra taldeak Touringen kontra neurtuko ditu indarrak Atxabalpen arratsaldeko 4.30etan domekan. Denboraldiko azkenaurreko neurketa izango da. Mondra 12. lekuan dago 33 puntu eta 3 negatiborekin eta ez du jeisteko arriskurik. Hala ere, puntuak baino taldearen prestijioa egongo da jokuan. Azken norgehiagotan penagarri egon da Arrasateko taldeak eta etxean jokatu behar duen denboraldiko azken partiduan jarraitzaileei garaipena eskaintzea nahi izango dute. Aurrean izango duten taldea 17. dago sailkapenean, 29 puntu eta 7 negatiborekin. Errenderiko taldeak behar beharrezko du garaipena 3. mailan jarraitu ahal izateko. Mondrak, beraz, ez du lana makala izango da partidua irabazteko.

Maiatzaren
4tik 18ra

Aurreinskripzio epea zabalik

BBB • IEE • BATXILERRAK • UBI • A, D, D' ereduak



INSTITUTUA DENONA!

Zatoz informatzera!



Santa Teresa, 25 • Tfnoa: 79 44 47/37 • ARRASATE

egizabal




Bidekurutzeta, 13
BERGARA
Tfnoa: 76 12 28

poltsak
oinetakoak

Ferrerias, 9
ARRASATE
Tfnoa: 79 66 01

Ez gero
kale egin!!

Gogoratu...
Autoaren Feria ikusgarria
MECA-n
Maiatzaren 12tik 14ra





Gomar-Arrasate, neurketa erabakiorra

Futbitoko lehen mailakoek ezin dute huts egin denboraldia bukatzeko falta zaizkien partiduetan. Cafeteria Gomar eta Arrasate izango ditugu nor baino nor domekan eguerdiko 12etan Gasteizko Judizmendiko kiroldegian. Arrasatek lehen mailari eusteko nahi eta nahiez irabazi behar du norgehiagoka. Gomarrek 20 puntu ditu, Arrasate baino bi gehiago eta talde biak jeisteko zorian daude. Lehen mailan 16 talde daude eta 4 jeitsiko dira. Une honetan Arrasate 13. tokian dago, Gomarri irabaziko balio jeitsieratik kanpo geratzeko aukera asko izango luke. Galdu ezker eta gainontzeko partiduetan irabazi, arrasatearren etorkizuna Gomarrek lortzen duen emaitzen menpe egongo litzateke.

HURRENGO NEURKETAK

Futbola

3. maila: Mondra - Touring. Igandea. 4.30etan. Atxabalpe.
 2. Erregionala: Urki - Mondra. Larunbata. 13.45etan.
 Emakumeak: Urretxu - Mondra. Larunbata. 3.30etan.
 Jub Ohorezko liga: Mondra - Herrea. Larunbata. 4.30etan.
 Lehen kadeteak: Aurrera - Arrasate. Larunbata. 11.30etan

Infantilak: Aloñamendi - Arrasate. Ostirala. 6.30etan.

Eskubaloia

Lehen maila: Arrasate - Zarautz. Larunbata. 5.30etan Iturripen.
 Lehen maila: Arrasate - Arrate. Asteazkena. 8.30etan. Iturripen.
 Lehen territoriala: Elizaran - Arrasate. Igandea. 10.45etan. Andoain.
 Kadeteak: Aloñamendi - Arrasate.

Igandea. 12etan. Oñati.

Futbitoia

Lehen maila: Gomar - Arrasate. Igandea. 12etan. Gasteiz.
 Arabako territoriala: Ra 55 - Arrasate.

Rugby-a

Emakumeak: Arrasate - Elorrio. Larunbata. 4etan. Garagartzan.

Jubenilak: Deba - Arrasate. (Ondartzako Rugby txapelketa)

Pilota

Herri artekoa: Zaldibia - Arrasate. Ostirala. Zaldibian.
 Herri arteko herramientan: Arrasate - Anoeta. Larunbata. 11etan. Musakola.



Miguel ALTUNA
 Institutua

Ibargarai, 1
 Tfnoa: (943) 76 24 91
 BERGARA

MODULO III

Mekanikagintza
 Administrazio eta
 Enpresen Gestioa
 (Teknikaria)



2º BTI
 2º BAG
 3º FP II
 COU

MODULO II

Administrazio eta
 Enpresen Gestioa
 (Laguntzaile)



2º REM

FP II

Mekanika
 Elektrizitatea



2º REM
 3º BUP

Aurrematrikula: maiatzaren 4tik 18ra
Bulego orduak: goizez 9.30etatik ordu 1era
arratsaldez 3etatik 5etara

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai, 2 BERGARA • Tfnoa: 76 24 91 - 76 38 40

Musakolako elizaren mende erdia

Beñardo Kortabarría

Munduaren gehiengoa bigarren Muiidu Gerratearen bukaerako ospakizunen ajea gaintik kendu ezinda zebilenean, Musakolako auzoko San Isidro elizaren inaugurazioari ekiteko prest zeuden. 1945eko maiatzaren 15ean, Don Jose Luis Iñarra parrokoak zuzendutako Meza Nagusiaren bidez burutu zen inaugurazioa. Zazpi urte beranduago, 1952ko abuztuaren 7an, iritsi zen bertara Don Pablo Barrena, gaur egungo parrokoa.

Eliza batentzat 50 urteko epea ez da ezer. Beraz, norbaitek pentsa dezake, Musakolako San Isidrorekiko fedea eta debozioa ez dela aspaldiko gauza. Oker legoke horrela pentsatuko lukeenak. Don Pablok 1970an idatzitako liburuak argi erakusten duenez, askoz ere lehenagokoa da Musakolako baserriarren nekazal santuarekiko gogoia.

S. ANTOLIN ZENEKOA...

Bere liburuskan denboran atzera egiten du Musakolako abadeak eta Garibai zenaren idatzi bat aipatzen du. Garibaik zioenaren arabera, 1713.



Erromanikoa dirudienarren industrializazio garaikoa da Musakolako eliza

urtera arte, Asentzio eguneko prozesioa, Zubillagatik buelta egin ondoren San Antolin ermitaraino iristen ei zen. Badirudi garai hartan auzokideek ermita konpontzea eskatu ziotela Calahorrako gotzaigoari parrokia urrun samar geratzen baizitzaien. Baime-naren truke San Isidoren irudi bat jartzeko konpromezua hartzen zuten Musakolakoek. Gotzaigoaren baiezkola lortu zuten, baina ez zen obrarik egin eta 1784. urtean, lurra jota zegoenez, ermita itxi egin zen. Beraz, baserriarren santua Musakolara ekartzeko

lehen saiakerak huts egin zuen.

Ohiko eta ezohiko arazo, poztasun, nahigabe etabarrez igaroko zen mendez-mende arrasatearren bizitza XX. gizaaldira iritsi artean. Mende hasiera horretan baserri-azua zen Musakola, 26 baserri osatutakoa; hortaz, ez da harritzekoa nahi izatekotan, baserriarrek baserriarren santua nahi izatea. Baina, hara nondik, XX. mendeak industrializazioa dakarren berarekin batera; eta arraroa badirudi ere, fabrikak erabakiorrak izango dira baserriarren patroia Musakolara iristeko orduan

ESKOLA ABIAPUNTU

1923ko maiatzaren 15a garrantzitsua da Musakolarentzat. Egun horretan Eskola ireki zen auzoan, eta irekitzeko, agintariez gain, auzoko etxebizitza guztietako ordezkariak elkartu ziren bazkari baten inguruan. Postre jaten ari zirela, 1784ko ideia hura berreskuratzuz, San Isidro eguna auzoko jai-eguna izendatzea erabaki zen.

Geroztik bat egiten dute Musakolako jaiak eta San Isidro egunak eta, dirudienez, urteroko bazkarian aipatzen ei zen auzoan eliza bat egin

beharra, baina ez zen benetako planik aurrera eramaten. Gauzak horrela, 1943. urterako, Cerrajerak bere langileendako etxebizitzak eraiki zituen Musakolan. Etxebizitzak ezezik eliza eraikitzea ere erabaki zuten eta 1944. urtean egindako proiektua bukatuta zegoen, hasieran esan bezala, 1945ko maiatzaren 15erako.

Musakolako eliza Luis Astiazaran arkitektoaren proiektua da, eta, aitortu beharra dago, lan bikaina da. Berrogeitamargarren urteurreneko ekintzak direla eta zertxobait txukundu egin

badute ere, betiko itxura gordetzen du elizak, estilo erromanikoa imitatuz gusto handiz eta ondo egindako lana da eta. Kanpotik zein barrutik ikusita benetako elizatxo erromanikoa ematen du, garai hartako ezaugarri ugari baitu: sarrerako atean arku eder bat, argitasunerako leiho txiki bat, kanpandorre arrunta, barrualdean ia dekoraziorik eza, teilatuko zurezko egitura bistara... eta eskuartearen laia daraman San Isidro bakarti batez osatutako aldea. Bi hitzetan esanda: industria garaian eraikitako lan erromanikoa.



Elizako inaugurazio meza.



Elizan egin zen prozesioetariko bat.

Aipatzeko zenbait gauza

✓ 1929. urtean, auzoko jaietan ateratzeko inungo irudirik ez zutenez, Antonio Armengou marrazki irakasleari bat pintatzea eskatu zioten. Horrela egin zuen honek eta gaur egun, elizaren berrogeitamargarren inaugurapena dela eta jarri den erakusketan ikus daiteke.

✓ Inaugurazio meza On Jose Luis Iñarrak zuzendu zuen, eta berari laguntzen Justino Uribesalgo eta Jose M. Arizmendiari eta egon ziren. Orduko alkateak, Domingo Azurmendik eta Union Cerrajera enpresako jabeak ere bertan egon ziren.

✓ Don Pablo Barrena Musakolako abadeak, ia elizak beste urte darama auzoan, 1952ko abuztuaren 9an hartu zuen eta bertako kargu. Bera, izatez Kanpazar biderako baserri batekoa da, "Villa Tranquilla".

✓ Don Pablo Musakolara iritsi zenean, auzoak 110 sukalde zituela esaten zion bertako ikatz biltegiko ardura-dunak; kontuak horrela egingo balira, gaur egun 4.000 sukalde baino gehiago egongo lirake.

✓ Elizako kanpaitxoak gaur egun mezatara deitzeko erabiltzen bada ere, eliza eraiki zenean Union Cerrajerako langileei lanerako orduaren hasiera adierazteko erabiltzen zen.

✓ Kanpoaldeko arku erromanikoa zementuz egindakoa da. Hala ere, hain ondo egonda, hankasartze ugari eragin ditu. Abadeak berak aipatzen zuenez, turista bat baino gehiago egon omen da arkuari argazkiak ateratzen; era berean, "El romano en Guipuzcoa" izeneko liburu bateko azalean ere azaltzen ei da. "El romano industrial en Guipuzcoa" deitu balioite gaitz-erdi.

✓ Eliza eraiki zeneko berrogeitamargarren urteurrena dela eta ekintza ugari antolatu da, horien artean aipatzekoa da jarri den argazki erakusketa. Auzoko jaiak, baserriak, elizako inaugurapeneko irudiak, jaunartzeak, ezkontzak etab. ikusteko aukera dago bertan.



Eliza ondoko lokaleko antzerki bat. Ezkerretik eskumara: Txomin Armendariz, Jose Mari Mendizabal, Pablo Barrena, Ibon Aperribai, Antxon Markaide, Juan Garai eta Felix Ormaetxea.



Musakolako elizako lehen ezkontza: German Sagasta eta Justina Egidazu.



rrasateko Karlistek dantzari gaztez osatutako taldea ere bazuten garai batean. Horrelako taldeek ohi zuten

moduan, herriko jaietan eta antzeko ospakizunetan eskaintzen zituzten euren saioak.

Erretratu hau 1929an atarra zuten, herriko jaietan itxurara denez. Plazako kioskoan ageri dira dantzariak eta euren atzealdean parrokia eta alboan Zirkuloaren etxea, balkoietan Espainiako banderak jarrita.

Goian, kioskoan eserita Segundo Sanz Gonzalo eta

Jesus Mondragon Zubia.

Beherago, ezkerretik, Jose Mondragon Zubia, Luziano Oñate, Sotero Atxa (banderarekin), Juan Uribebebarria, Luis Otxandiano, Klaudio Otadui eta Felix Arzamendi.

Behean, Felix Ruiz de Alegria, Miguel Gorosabel, Felipe Amozarrain, Rafael Escudero, Alejandro Uribebebarria, Leandro Agi-

rre, Modesto Otadui, eta alboan dantzariekin batera, Felix Uribebebarria (makurtuta), Felix Amozarrain eta Agustin Garcia (txapelaz).

Jarrita, Jose Otxoa, Rafael Agirre eta Eulogio Otxoa, Joserren anaia.

Kioskoaren eskaileren ondoan, begira, Manolo Amozarrain eta Joakin Etxebarria Axpe.

HITZALDIA: BERTSOLAMINTZA



Andoni Egaña
Gaia:
Txapelketez



Joxerra Gartzia
Gaia:
Gai jartzailea gaitzat hartuta

Laburbilduma bideotan:


- Jon Sarasua: "Bertso berriak, bertso berri"
- Xabier Amuriza: "Bapateko bertso plaza"
- Pello Esnaola: "Bertsolaritzaren alfabeto"

MAIATZAREN 18an (OSTEGUNA)

MONTEIRON JAUREGIAN • ARRATSALDEKO 7etan



LABURRAK



Ramón Oller eta Marta Carrasco dantzan.

Kataluniako dantza garaikidea zapatuan

Maiatzaren 13an gaueko 10.30etan, Ramón Oller dantzari eta koreografo katalanaren "Metros" dantza taldeak, "Miénteme, por favor" obra eskainiko du Amaian. Emanaldi hau Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen duen "Maiatza Dantzan" dantza garaikideko ihardunaldien egitarauaren barruan kokatzen da; aurtengoak XII.ak dira.

Ramón Oller: koreografoa

1984n sortu zuen bere lehen koreografia. 1985ean "La fábrica" dantza eskolan irakasle sartu eta METROS konpainia sortu zuen; geroztik hamar koreografia baino gehiago sortu du. 1994an

Nacho Duatok zuzendutako Estatuko Ballet Konpainiarentzat "Principal 1" izeneko obra sortu zuela azpimarratu behar da. Arrasaten ikusiko den "Miénteme, por favor" koreografia, Bartzelonako Grec'94 Festibalean estreinatu zuen Marina Rusell abeslariarekin batera.

Ramón Ollerrek, koreografia sortzeaz gain, Marta Carrasco eta Keith Morinorekin batera dantzatzen du "Miénteme, por favor" obran.

"Miénteme, por favor": sinopsia

Koreografia hau dantza eta musika espresibideen arteko loturatik jaiotzen da, baita bi artisten arteko loturatik ere: Ramón Oller eta

Marina Rusell. "Miénteme, por favor" bikote baten arteko harremana inguratzen duen pasio eta maitasunaren inguruan datza; pasioa ulertzeko bi modu desberdin, baina beti antzerako ondorioetara helduz. Ramón Oller-en hitzetan, "bizitza honetako pertsona bakartiei zuzendutako kantu apasionatua da obra hau. Harreman batean isiltasuna nagusitzen denean, hotza eta bakardadea iristen dira, baina isiltasun hori sekula esaten ez diren hitzez beteta dago. Harreman batean momentu hori heltzen denean, zera eskatzen du norbaitek: Gezurra esaidazu, mesedez!".

Sarrerak 700 ptan salduko dira, Gazte Txartela izaeraz gero, 500ean.

AEDko Kantu Jaialdia

Maiatzaren 10ean amaitu zen AEDk antolatutako Kantu Jaialdian izena emateko epea. Hamar talde izan dira animatu direnak eta ekainaren 10ean Amaia Antzokian eta gaueko 10.30etan kantatuko dituzte prestatutako abestiak.

Kirolari buruzko mahaingurua

Deba Garaiko Mankomunitateak hitzaldia eta mahaingurua antolatu du Oñatiko Kultur Etxean maiatzaren 18rako. Ekitaldia arratsaldeko 7etan izango da eta hitzaldia, Javier Orbañanosek, SHEEko Entrenamendu Teoriaren irakasleak emango du. Mahaingururako laguntzailak, Javier Aymerich, igeriketa aditua, Jose Julio Barrenetxea, eskubaloi aditua, Iñaki Ugarteburu, Rugby aditua eta Ion Patxi Diaz, futbol aditua izango dira. Ekitaldi honetan jorratuko den gaia "Entrenamiento genérico dirigido a jóvenes deportistas, 10-15 años" izango da.

Arrasate Musikalen matrikulazioa

1995-96 ikasturterako matrikula egiteko epea zabalik dago Arrasate Musikalen. Maiatzaren 8tik ekainaren 16ra bitartean egin beharko dira matrikulak, arratsaldeko 6etatik gaueko 9etara.

ITSASKI
ARRANDEGIA

 Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

 Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

PEUGEOT

 Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

"PAL"

 burdindegia,
brikolage
eta tresneria


 Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

• ESAERA •

“Negozioetan lehena
ausardia da, baita
bigarrena eta
hirugarrena ere”.

ANONIMOA

• JEROGLIFIKOA •



Asmatu zuten?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10							
11						12	
13						14	
15		16	17	18	19		
	20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Zatitzearen ekintza. 2. 9. Adibide moduan. 10. Orkestra-zuzendariaren makilatxo. 11. Deiturak. 13. Musika-eskalako 6. nota. 14. Musu. 15. Okinwa irlako biztanlea. 20. Ilea zuritua duena.

Bertikalak 1. Igor, eskubaloiko punta. 2. Txalaparta. 3. Diti. 4. (Ald.) Ibai gainetik pasatzeko. 5. Toreatzaileak egiten duen lantzea. 6. Zurrut egin. 7. Alfabetoko 21. letraren izena. 8. Azoka saltzen duen pertsona. 12. Bits. 16. Israelgo ibilgailuetan. 17. Neona. 18. Lehena eta azkena. 19. Txinaren dialektoa.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez arre eta ez iso? Zerbaite-tan hasteko ordua da.

Taurus Garai gogorak datoz. Adorea beharko duzu.

Gemini Eguraldi onarekin zure autoaren zikinkeria gehiago nabari da.

Cancer Txita batek baino gutxia-jaten duzu. Kontuz ibili!

Leo Norbait laguntza eskatzen ari zaitzu. Begiak zabaldu.

Virgo Lanean hasteko gogo behar da eta zuri hori falta zaizu.

Libra Aldean eramateko telefonoa erosi ei duzu. Behar duzulako?

Scorpio Nazkagarria da belarriak garbitzea, baina zikinak ikustea...

Sagitaris Intelektual itxura duzu betaurreko berriekin.

Capricorn Afektibitate ikastaro baten parte hartu beharko zenuke.

Aquarius Bitxia baina benetan polita da zure laguntxoaren aurpegia.

Piscis Zenbat sekretu dituen norberaren bizitzak, ezta?

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologien unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.


Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIONDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA



Xabier Zubizarreta



Ignacio Jimeno




Jose Mari Loiti



Isabel Gallastegi



Joseba Ugalde



Ostegunean, hauteskunde-mahaingurua

Osteguneroko "Ni Alkate" saioari amaiera emateko, Mikel Irizarrek alderdi politikoe-tako alkategaiekin hauteskunde-mahaingurua zuzenduko du. Mahainguru honetan, alderdi bakoitzaren hauteskunde-programa eta azken agintaldi honetan herrian zein udaletxean ger-

tatutako gorabeheren inguruan eztabaidatuko dute alkategaiek. Informatiboen ondoren, 9.30etan hasiko da programa eta 10.30ak arte iraungo du. Hala ere, hainbat gai jorratu gabe geratuko balira, mahainguruak maiatzaren 25ean jarraituko luke.

KOMIKIA



Sogu-Zar



MAIZPIDE
euskaltegia

Tfnoa: (943) 88 92 31/32
LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaileko ikastaroak: 3-21
- Abuztuko ikastaroa: 1-25
- Iraileko ikastaroa 4-29

MATRIKULA:

Maiatzaren 9tik aurrera
HABEren dirulaguntzaz

PROGRAMAZIOA



14 Igandea

21.00etan
Mondragol. Itxaro Zubi-
llagak aurkeztuta

15 astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

16 Asteartea

13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

17 Asteazkena

13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Udal-hauteskundeak
Aretxabaletan" Jon Sarasuak
Aretxabaletako alkategaiekin
mahaingurua egingo du.

18 Osteguna

13.30etan
"Udal-hauteskundeak
Aretxabaletan" errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
"Hauteskunde-Mahaingu-
rua" Alderdi politiko guztietako
alkategaiek hartuko dute
parte.

19 Ostirala

13.30etan
"Hauteskunde-Mahaingu-
rua" (errep.)
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrazki Bizidunak

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1.Zantukera, 9. Adi-
bidez, 10. Batuta, 11. Abizenak, 13.
La, 14. Pa, 15. Okimawar, 20. Ilizu-
ri.
Bertikalak: 1.Zabaldu, 2. Adabaki,
3. Titi, 4. Iruz, 5. Kite, 6. Edan, 7.
Te, 8. Azokari, 12. Apar, 16. II, 17.
No, 18. Az, 19. Wu.
Erdiz eredi.

JeroGifitkkoa:

Erdiz eredi.

Etxebizitzak

- **Beste lagun batzuekin batera** pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Eskoriatzan. Tfnoa: 79 09 11. (Gauzez).
- **Pisua alokatzen da Bizkaia Etorbidean.** Tfnoa: 77 14 24.
- **Deban udapasa egiten duzuenoi.** Ondartza eta Alameda parean udara denboraldi osorako pisu bat alokatzen dut. Tfno: 76 58 91. Deitu Beta-tik hamaiketara.
- **Emakumeendako ileapaindegia** duen etxebizitza salgai Arrasate erdialdean. Tfno: (94) 682 04 78.
- **Torrevejan apartamentua** saldu edo udarako alokatzen da, pizina eta guzti. Tfno: 79 53 18.
- **Zarautzen uda partean** pisua alokatzen da. Tfnoa: 42 46 85 edo 83 14 87. Maite.
- **Donostian uda partean** pisua alokatzen da. Tfnoa: 42 46 85 edo 83 14 87. Nati.

Lana

- **Frantsez, ingeles eta OHOk** klaseak ematen ditut. Tfnoa: 79 99 82. Miren.
- **Ingelesezko klase** partikularrak emango nituzke. esperientzia daukat. Tfnoa: 79 21 56.
- **Unzuetan jatetxeak** hurrengo lanpostuetarako pertsonak behar ditu: sukaldari laguntzailea, kamarero eta asteburutarako laguntzailea. Dei egin (945) 44 50 95.
- **Esperientziadun emakumeak** etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 58.
- **Ingelesezko klase partikularrak** ematen dira. Esperientzia eta talde txikiak. Tfnoa: 79 28 80.

- **Gaztelarazko ipuin bat** euskaratzeko norbait behar dut. Tfno: 715331.
- **Andra erizain** auxiliarra eta esperientziadun gerokultora pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfno: 79 34 53.
- **Neska bat behar da** dendan lan egiteko; interesatuta dagoenak sobre batean bidal dituzala, bere datu pertsonalak, telefonoa eta esperientzia laborala. Aptdo 34 Eskoriatza, 20.550.
- **Maila guztiko ingeles klaseak** ematen dira; baita azterketak prestatzen lagundu ere. Tfno: 79 53 40.
- **Lanak ordenadorez pasatzen dira** eta itzulpenak (ingelesetik-gaztelarara, gaztelaratik-ingelesera) egiten dira. (kanadiarra). Tfno: 79 53 40.
- **Astebukaerarako Dukiena** jatetxeak zerbitzari baten beharra du. Harremanetarako dei egin (945) 44 50 86.

Salerosketak

- **Kanping edo karro erremolkea salgai.** 75.000 pta. Tfnoa: 79 00 99.
- **Ford Fiesta XR2, SS-Y** salgai prezio onean. Tfnoa: 71 42 19.
- **Sukaldeko mahaia** eta aulkiak salgai, baita sofa-kama ere, denak ia berri-berriak. Prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Kotxea salgai:** Opel Corsa Swing SS-6501-V. Oso egoera onean. Deitu Tfno: 770281.
- **Txakurkumea emango diot** nahi duenari pas-tor aleman arrazako umea da, martxoaren 31n jaiotakoa.
- **Karro denda** bat erosi nahi dut. Tfno: 79 55 88. 8etatik aurrera deitu.

- **Suzuki DR-BIG 50 c.c** salgai. Tfno: 782979. Iban.
- **Ford Transit** salgai. 100.000 kilometro ditu. Prezio eta egoera onean. Tfno: 714894. Joxe Mari.
- **Kotxea amildegitik behera,** soloik-solo joan zaidalako aldatu beharra daukat. Kotxe on bat baldin badaukazu, aukeran gogorra eta ahuntz samarra dei egidazu. Tfnoa: 79 76 92. Juanito
- **Siberian Husky arrazako txakurkumeak** salgai. Tfnoa: 79 09 54.

Denetarik

- **Apirilaren 17an urrezko eraztuna** galdu zitzaidan San Andresetik BBVrako bidean. Tfnoa: 79 29 97. Eskertuko da.
- **Hiru perladun belarririkoa galdu zait** Garibai Etorbidea inguruan. Tfnoa: 77 08 47.
- **Betaurreko graduatuak** galdu egin dira (Olar-tetik Udaletxera bidean). Norbaitek aurkitu baditu dei dezala. Tfno: 78 27 43 honetara mesedez.
- **Apirilaren 29an** eraztuna galdu zitzaidan azokan. Eraztunak 3 brillante eta 4 rubi ditu. Tfno: 79 00 04.
- **Gasteiza joaten naiz egunero,** eta goizeko 8etarako bertan egon behar dut. Norbaitek joateko autoa nahi badu. Tfno: 79 80 91.(Gauzez deitu).
- **Joan den larunbateko SFX-eko abesbatzen** topaketetan klabeek betetako kaxa bat desagertu zen, Amaia antzoki inguruan. Norbaitek ikusi badu, mesedez San Frantsisko Xabier-era dei egin dezala. Tfno: 79 64 79.
- **Musika talde bat,** beste talde batzuen bila dabil lokal akondizionatu bat konpartitzeko. Tfno: 799134. Miguel.

Aste Gazte

Bekak

- Espainiako Turismo Institutoak, "Turismo de España 95-96" beken deialdia egiten du, bai Espainian bai atzerrian, ikasketak, tesiak... burutzeko. Epea: maiatzak 26.
- Diputazioko Kultura eta Turismo Departamentuak, beka eta dirulaguntzak emateko deialdia egin du, arlo ezberdinetan: musika, dantza, antzerkia, ikusentzutekoak, arte plastikoak, errestaurazioa, argazkigintza, literatur sorkuntza.... Epea: maiatzak 27.

- Oñatiko Soziologia Juridiko Instituto Internazionalak "Renato Treves" beka deitzen ditu, bai masterra bai doktoregoa egiteko. Soziologia ikasketak eta Zuzenbide ikasketak dutenei zuzenduta. Epea: maiatzak 30.

Ikastaroak

- **Salsa** ikastaroa, Arnaldo Pattersonen eskutik, maiatzaren 18, 23, 25, 30 eta ekainaren 1ean, astearte eta ostegunetan, 3 ordu-tegi ezberdin. Matrikula: 3.250/2.250 pta.
- **Golf** ikastaroak, hastapen

maila. 3 asteburu, maiatzean edo ekainean. Lagran-Bernedon (Arabana). Ikastaroa, alojamentua eta pentsio osoa: 23.000/20.000 pta.

Lehiaketak

- "Villa de Portugalete" X. Komiki Lehiaketa. Edonork har dezake parte. Gaia librea, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: urtarilak 12.
- "VI. Ipuin Lehiaketa, Portugaleteko Hiria". 14-30 urte bitarteko idazle guztiek har dezakete parte, kategorian bakar batean. Lanak gaztelaniaz zein euskaraz aurkeztu daitezke. Epea: uztailak 28.

"... baina gazte-riari gauza asko bar-katzen zaizkio, ba-tez ere, hamasei urte t'erdirekin".

**"VIOLET TO VITA"
V. TREFUSIS**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

RKUZ



altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

sukalde integrala

FAGOR 



Mitarte, 3
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



elektragailuak

telebista • bideoa • soinua

expert



banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97



Aretxabaleta

MUGARRI



Bigarren eskuko autoak, garantia oso osoaz!



OPEL CALIBRA	2.0 i		B-NJ
ESCORT	RS	1.6 i	SS-AD
MITSUBITSU	GLS	4x4 TDi	SS-AP
NISSAN TERRANO		4x4	SS-AM
OPEL KADET	1.7	DIESEL	SS-AF
OPEL KADET	GSi	2.0 i	SS-AG
OPEL ASTRA	2.0 i	ABS	NA-AL
ORION	1.6 i	S-GUIA	SS-AD
ORION	1.6 i	S-GUIA	SS-AB
FIESTA	1.6 i	XR2 i	SS-AJ
ESCORT	GL	1.6 D	SS-Y
TRANSIT	2.5	DIESEL	SS-AG

Autoak berrikusi, probatu eta kontrolatzeaz gain, garantizatu egiten ditugu.